



MASTER AMAIERAKO LANARI BURUZKO INFORMAZIOA

Ikasleak Master Amaierako Lana (MAL) egiteko gaia eta tokia zehaztuta dituenean, hitzarmena eta/edo eranskina bete eta masterraren idazkaritzan entregatu beharko ditu, kasuaren arabera:

- MALa UPV/EHUKoa ez den zentro, erakunde edo enpresa batean egiten bada, kasuan kasuko hitzarmena eta eranskina sinatu beharko dira.
- UPV/EHUri dagokion Ikergune batean egiten bada, III. eranskina sinatzen da, UPV/EHUn MAL garatzekoa, hain zuzen ere.

Master Amaierako Lanaren defentsa egin ahal izateko, ikasleak masterreko gainerako 39 ECTSak gaindituta izan beharko ditu. Salbuespenezko egoera gisa, Masterraren Batzorde Akademikoak hura defendatzeko baimena eman ahal izango du, baldin eta masterraren karga osoaren % 10 gainditzeko bada ere (6 ECTS).

MALeko zuzendariak doktore izan beharko dute. Masterreko irakasleak ez badira, MALeko zuzendariaren onespena eskatu beharko diote Masterraren Batzorde Akademikoari.

MALaren defentsarako prozedura

Masterraren batzorde akademikoa jakinaren gainean mantendu beharko da honako atal hauen gainean, bai eta Kimika fakultateko masterretarako idazkaritzari ere kopia bidalita:

- Defentsarako data
- Lekua eta ordua
- MALaren izenburua
- MALaren defentsarako epaimahaia
- MALeko zuzendaria/zuzendarikidea
- MALeko hizkuntza

Ikasleak MALaren kopia bat erantsi beharko die, pdf formatuan, epaimahaiko kide bakoitzari eta masterren idazkariari.

Webgunean MALaren memoria idazteko formatu bat dago.

Master amaierako lanaren memoriaren deskribapena eta formatua

Kimika eta Polimeroetako Masterraren Amaierako Lana banakakoa izango da, eta gainditu ahal izateko, aurrez aurreko saio publikoan defendatu beharko da, horretarako izendatutako epaimahaiaren aurrean. Master Amaierako Lanaren defentsa publikoa egin aurretik, ikasleak master amaierako memoria bat idatzi beharko du, proiektua eskaini den hizkuntzan. Memoria horretan, aurrekariei,



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUÍMICA

helburuei eta lan planari, emaitzei eta horien inguruko eztabaida kritiko eta arrazoituari buruzko sarrera labur bat eta ondorio batzuk jaso beharko dira. Memoriak

lanaren laburpena eta ondorioak jaso beharko ditu ingelesez. Memoria oso-osorik ingelesez idatzita badago, laburpena eta ondorioak Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batera ere itzuli behar dira.

Jarraian, Kimikako eta Polimeroetako Master Amaierako Lanaren Memoria idazteko eta egiturari buruzko gomendio batzuk adierazten dira, baina ez dira nahitaezko hartu behar. Azken batean, ikasleak xehetasun hauek adostuko ditu zuzendariarekin:

AZALA

Azalerako adibide bat agertzen da 1. eranskinetan. Nolanahi ere, azalean honako hauek agertu beharko dira:

- Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
- Facultad de Química/Kimika Fakultatea
- Kimika eta Polimeroak masterra
- UPV/EHUren logo ofiziala
- Master Amaierako Lana
- Lanaren izenburua
- Egilearen izen-deiturak
- Lanaren zuzendariaren izena, eta, hala badagokio, zuzendariordearena.
- Defentsa data (hilabetea eta urtea)

LABURPENA

(Egituratua). Lanaren laburpen laburra. Ingelesezko itzulpenarekin batera joango da. Memoria oso-osorik ingelesez idatzita egongo balitz, laburpena eta ondorioak Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batera ere itzuli eta jasoko dira bertan.

Aztergaiari buruzko SARRERA: Aurrekariak berrikuspen bibliografikoarekin batera sartu beharko dira, behar bezala dokumentatuta. Argi eta garbi adieraziko dira lortu nahi diren helburuak, lan plana eta azterlanaren justifikazioa.

ESPERIMENTALA: Azterketa aplikatuaren diseinua eta erabilitako teknika esperimentalen deskribapena zehaztuko dira, bai eta horien eragiketa baldintzak ere.

EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Planteatutako helburuei buruzko aurkikuntzarik garrantzitsuenak azalduko dira eta modu kritikoan eta arrazoituan eztabaidatuko dira. Hala badagokio, azterlanean lortutako emaitzak berrikuspen bibliografikoan bildutako beste azterlan batzuetan aurkitutakoekin alderatuko dira.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUÍMICA

ONDORIOAK

Emaitza garrantzitsuenak nabarmendu beharko dira eta lanak egungo jakintzari egiten dizkion ekarpenak adierazi. Ondorioek lortutako emaitzetan oinarritu beharko dute eta ez dira horien deskribapen hutsa izango. Ingeleseztako itzulpenarekin batera aurkeztuko dira. Memoria oso-osorik ingelesez idatzita egongo balitz, laburpena eta

ondorioak Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batera ere itzuli eta jasoko dira bertan.

BIBLIOGRAFIA

Aipuak zenbakien bidez markatuko dira, testuan agertzen diren hurrenkeraren arabera, eta lana egiteko erabiltzen direnak sartuko dira, ez besterik.

Memoriaren luzapenari dagokionez, tamaina librekoa izango da.

Eskuizkribuaren gorputzean, gaztelaniazko testuetan EHUSans letra tipoa erabiltzea gomendatzen da, eta euskarazko testuetan EHUSerif letra tipoa, UPV/EHUren estilo eskuliburuan adierazitakoaren arabera.

Lerroarte 1,5koa eta tarte bikoitza paragrafoen artean.

Ikasleak, MALa defendatu aurretik, memoriaren kopia bat eman beharko dio masterreko idazkaritzari formatu digitalean (pdf) eta beste bat epaimahaikide bakoitzari. Defentsa aldia baino astebete lehenago entregatu beharko da beranduen.

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUÍMICA

1. ERANSKINA

MALeKo AZALERA ADIBIDEA

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUÍMICA

**Universidad del País Vasco/Euskal Herriko
Unibertsitatea.**

Kimika Fakultatea

Kimika eta Polimeroak masterra

MASTER AMAIERAKO LANA

⟨LANAREN IZENBURUA⟩

Egilea; ⟨Lanaren egilea ⟩

Zuzendaria(k): ⟨lanaren zuzendaria eta zuzendarikidea⟩

Donostian, ⟨urtea⟩ko ⟨hila⟩